

c) Hezkuntza-emaitzen gaineko erantzukizuna

1. maila: Oinarrizkoa

Ulertzen du bere lana ezagutzak transmititzea dela eta ikasleei bakarrik dagokiela ezagutza horiek barneratzea. Ez du uste bere irakaskuntza-jardunari buruzko gogoeta egitea beharrezkoa denik, eta ikasleei egozten die beren emaitzen gaineko erantzukizuna.

2. maila: Garatze bidean

Uste du bere lanean arrakasta izan duela ikasleek ikasi egiten dutenean. Ikastetxeak eskatzen duenean, irakaskuntza-jarduerari eta barne- eta kanpo-ebaluazioen emaitzei buruzko gogoeta indibidual eta kolektiboan parte hartzen du.

3. maila: Garatua

Bere arrakasta profesionala ikasleek lortutako ikaskuntza- eta prestakuntza-helburuen arabera neurtzen du. Halaber, gogoeta indibiduala eta kolektiboa sustatzen du irakaskuntza-jarduerari eta emaitzei buruz, horretarako indarguneak eta hobekuntza-eremuak identifikatuta, bere esku-hartzea eraginkorra izan dadin.

Horretarako, *diagnostikoa - plangintza - praktikara eramatea - ebaluazioa - doikuntza* zikloa erabiltzen du, ikaskuntza-prozesua ikasle guztiek arrakasta izateko behar beste eta etengabe doitzeko.

4. maila: Aurreratua

Ospea du inplikatu egiten delako ikasleen arrakastan, eta aurrerapenak lortzen dituelako.

Irakaskuntza-jarduera irakaskuntza-ikaskuntza prozesuak eta ikasleen emaitzak hobetzeko ekarpen eraginkorra lortzen laguntzen duten estrategiak etengabe bilatzeko prozeduren bidez sistematizatu du.

Partekatzen dituen jardunbide egokien eredu da.